

## Liburutegien legea: taifen erreinua

**Irtenbidea, liburutegi sistemaren lege esparrua ezartzeaz gain, sistema ezartzeko ezinbestekoak diren azpiegiturak ematea litzateke**

GERARDO LUZURIAGA SANCHEZ. LIBURUZAINA

Aurreko bi artikulutan azpimarratu nituen Eusko Jaurlaritza osatzen duten hiru alderdi politikoek aurkeztutako Euskadiko liburutegien legearen gabeziak. Oraingoan Euskal Sozialista taldeak legeari egindako zuzenketak az- tertuko ditut. Esan beharrean nago sistema bibliotekarioari dagokionez haratago joan den alderdi politikoa izan dela, bi arrazoiengatik, alde batetik, disimulurik gabe legean begiztatzen diren deszentralizazioaren bideak argitu eta zehaztu dituelako, eta bestetik espresuki proposatzen duelako irakurketa sare publikoaren kudeaketa eta finantzaketa aurrera eraman behar dela Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta hiriburuetako udalen artean.

Legebiltzarrak onartuko duen legean, liburutegien eskumenak, ekintzak eta laguntzak Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta hiriburuetako udalen artean banatzen dira, aipatutako erakundeen arteko lehia sortuz eta handituz. Horrela bada, PSEk proposatutako zuzenketek herri osoan aginpidea edukiko duen sistema sortu beharrean, orain arte bezala agindu duten erakunde guztien arteko lankidetzan jarraitzea bultzatzen dute.

Lege honek, hortaz, nekez arautuko du liburutegien sektorea; nekez jarriko du indarrean politika bibliotekario komuna; aitzitik, Euskal Autonomia Erkidegoko herrialde bakoitzean dauden liburutegiek (foru aldundietakoak, hiriburuetako udaletakoak, unibertsitatekoak, Jaurlaritzakoak, espezializatuak...) Eusko Jaurlaritzarekin bat egiten ez duten bitartean, Euskadiko sistema bibliotekarioak ez du irizpide bateraturik edukiko.

Egindako zuzenketen akatsa lankidetzaren printzipioan oinarritzean datza. Liburutegien ezaugarriak esanguratsuenetariko bat lankidetzan lan egitea den arren, eta proiektu bibliotekario guztietan kooperazioa ezinbestekoa bada ere; lankidetzan lan egiteko era, ohitura eta moda honek ezin gaitu itsutu. Gogoan izan behar da Europar Batasunak eta batik bat nazioarteko liburutegietako erakunde ofizialek (UNESCO, IFLA, ISO...) erakunde nazional indartsuak sortzera bultzatzen dutela, esaterako Unescok informazio sistema nazionala gomendatzen du. Herri guzti- etan horrela bada, zer esanik ez gurean non hainbat erakunderen interesak nahasten diren, non irizpide katalogafiko eta linguistiko bateraturik ez dagoen.

Irtenbidea liburutegi sistemaren lege esparrua ezartzeaz gain, sistema ezartzeko ezinbestekoak diren azpiegiturak ematea litzateke: egoitzak, baliabide teknikoak, giza eta material-baliabideak... Halaber, nazioan liburutegi sistemen buru egiten dutenek, hots, liburutegi nazionalak, ondoko funtzio eta eskumenak dituzte: lurraldeko ekoizpen bibliografikoa bildu, bibliografia nazionala egin, lurraldeko gainerako liburutegiei arauak eman, lurraldeko agentzia bibliografikoa izan... Eta gurean ere, ezinbestekoa zaigu pareko funtzioak legean jasotzea: horretan datza legearen muina.

Azken buruan, gure herrian ere, lege honek, izenaz gain izanez ere, benetako sistema nazionala sortu beharko zuen, gainontzeko nazioetan sortzen den bezala. Izan ere, lege honek ez du bermatzen sistema bibliotekario orokorrik, hainbat erakunderen interes eta helburu diferenteak elkartzan baitira, taifen erreinua dirudien legea baita.